

JEFF MILLER

DOZENA BAT NERO

ESPAZIOKO ODISEA



desclée



desclée



FOKU BATEN ARGIPEAN ZUTIK ZEGOELA, NEIL Andertol Estatu Batuetako bandera bati eta zetazko xingola bat zuen domina bati begira zegoen. Saria zilarrezkoa zen, eta “ohorea” hitza irakur zitekeen hiru arranoren gainean.

Neilek bere bularrera begiratu zuen, eta bihotzaren parean zeraman dominaren pisua nabaritu zuen. Begiak itxi zituen, eta astiro-astiro bota zuen arnasa. Laster utziko zion bere misio militarrek sekretupean gordetzeari. Orduan, pauso bat eman zuen, bere herrialdeko armadako ohore-saririk garrantzitsuena jasotzeko prest.

Danba!

—Ai! —kexatu zen Neil, bere betaurrekoak plexigla-sezko azalera baten kontra zanpatu zituenean, eta azalera gardenean sudurrarekin utzi zuen koipe-orbana igurtzi zuen.

Neilek aurrean zuen beira-arasa uniformeaz, ohore-sariz eta Estatu Batuetako Aireko Indarraren misio ezagun eta arriskutsu askoren arrastoz beteta zegoen. Neilek bere burua jantzi haietako bat soinean zuela irudikatu zuen, Hildako Soldaduen Asteburuko zubian pilotatu zuen teknologia sekretudun hegazkinean jantzi zuen uniformeaz, hain zuzen.

Baina une hartan Neilek soinean zeraman uniformeaz gris koloredun kirol-jertse txanodun bat eta kaki koloreko galtza labur zimurtu pare bat ziren. Uda osoan ez zituen behin ere garbitu, ezta Romare Smythe institutuan Bigarren Hezkuntzako bigarren mailan zeramatzan bi asteetan ere. Ile beltz eta nahasia zuen. Orrazkera hark itxura gazteagoa ematen zion, baina zentimetro pare bat ere gehitzen zion Neili garaieran.

—Zer da domina hori? —galdetu zion Neili lagun batek. Tyler Neilen ondoan zegoen, behi-zezin iraungi zati bat jaten.

Tylerrek azal zurbila eta begi-zulo ilunak zituen, gauez berandu arte geratzen zelako bideojokoetan jokatzeko. Egia esan, Tylerrek leize-piztia bat zirudien, edo behintzat, leize-piztia batek geroago jateko ehizatu zuen animalia bat.

—Hori? Ez da ezer —esan zion Neilek—. Zer moduz doa misioa?

—Haririk gabeko sarearen pasahitza lortu dut —xuxurlatu zion Tylerrek, inguruan zegoen segurtasun-guardiari

zeharka begiratzuz. Zezinaren bilgarriarekin bola bat egin zuen eta zakarrontzira jaurti zuen. Ez zuenez barrura sartzea lortu, bilgarria jasotzera joan zen-. Eta proba-bideo bat grabatzea lortu dut... Ez nuke arazorik izan beharko zazpi minutuz grabatzeko. Audioa bikain entzuten da. Lor dezakegu!

—Ea egia den!

Biak joan ziren korrika beren ikaskideen ondora. Nerabe gogogabeen taldea bigarren mailak urtero egin ohi zuen txangoan zegoen.

Neil eta bere ikaskideak Rhome jaunarekin zihoazen. Rhome jauna gimnasia irakaslea zen, baita borroka libreko entrenatzailea ere. Baxua eta sendoa zen, beisbol jokalaria erdi profesionala izandakoa, ile zaindu gabea zeukan, eta ahate-ibilkera zuen. Baina okerrena zen Rhome jaunaren ikaslerik kutunena Tommy Scott harroputza zela. Tommy ikasle guztien aurretik zihoan bere kideekin batera.

Taldea eraikinaren korridore nagusia zeharkatzen ari zen. Hainbat ate zeharkatu behar ziren planetarioraino iristeko.

—Ongi etorri Coloradoko Museo eta Planetariora —esan zuen ahots batek bozgorailutik. Emakume-ahots robotikoak espazio-ontzi bateko adimen artifizial gaiztoa ematen zuen-. Hurrengo planetario-ikuskitzuna hamahiru minutu eta berrogeita zortzi segundo barru hasiko da.

—Primeran. Errekor berria lortzeko astia dugu —esan zuen Tylerrek, bere txalekoaren izkina batekin sudurra igurtziz. Bazirudien bere higieenak bost axola ziola. Beti aritzen zen zarataka zintz egiten eta azkazalak toki publikoetan mozten. Neili inbidia pixka bat ematen zion, bere etxean eskuak hogeituz behin garbitu behar zirelako.

—Errekorra hausten badugu, ziur “Nabarmenak” atalean sartzea lortuko dugula —esan zuen Neilek irrikari eutsi ezinik.

Une hartan Interneten modan zegoen erronka “Partida Filmazio Debekatua” zen, hau da, bideojoko baten pantailarik zailena toki publikoren batean proiektatu eta jokatzea eta guztia grabatzea. Batzuek bideojokoak zinemetako pantailetan proiektatu zituzten, beste batzuek autobusetako iragarki-pantaila digitaletan, eta nerd irudimentsuei buruz zitzaien edozein tokitan egiten zuten. Neilek bideo guztiak bere webgunerik gogokoenean ikusi zituen, Internet Piraseas foroan. Foro hura Abiarazpen Robiski izeneko hacker gazte eta misteriotsu batek kudeatzen zuen itsasontzi pribatu batean online zerbitzari batekin. “Nabarmenak” atalean agertzen ziren bideoak berehala bihurtzen ziren ezagun.

Interneten ikus zitezkeen bideo guztien arteko bakarrean proiektatu zuten bideojokoa planetario batean. Bideoa sei minutukoa zen bakarrik, eta gainera, oso-oso irudikalitate eskasa zuen eta ez zuen audiorik. Txangoa baino

egun batzuk lehenago, Neilek Tyler errekrutatu zuen, askoz bideo hobeia egiten saiatzeko.

Neilek ondo zekien misio hark *gamer* askoren arreta erakarriko zuela, eta Kameleoiaren misioan egin zituen lagunak ere harritzea lortuko zuela pentsatzen zuen. Denen hutsa sentitzen zuen, baita Trevorrena ere.

—Lan bikaina egin duzu, teniente —esan zion Neilek.

—Baita zuk ere, maiestate —erantzun zion Tylerrek. Argi zegoen ez zuela terminologia egokia menperatzen.

Rhome jauna geldo geratu zen Coloradoko Museo eta Planetarioko buffetean. Zuela gutxi jarri zuten buffet librea, jendea jatera joango zen eta gero erakusketak ikustera gertuko zen itzaropenarekin. Zoritxarrez, horrek frogatzen zuen gauza bakarra zen saltxitxak gizakion ezagutza osoa baino erakargarriagoak direla.

Neilek buffetaren sarrera jendetsua ikusi zuen (umeak eta jertse distiratsuak zeramatzen eta beren bazkariaren bila zihoazen amonak, batik bat).

—Zatozte, guztiok! Hauxe egingo dugu: hemen dituzue planetariorako sarrerak hamahiru minutu barru hasiko den ikuskizunerako, eta gero, erakusketak ikustera joateko asti libre pixka bat izango duzue —esan zien Rhomek, taldeari sarrera-sorta bat ematen ziola—. Bi ordu barru hemen elkartuko gara —jarraitu zuen—. Zuekin joango nintzateke, baina ez da sarrerarik geratzen. Gainera, buffetean oilasko mordoa dagoela entzun dut —esan zien. Gimnasia-irakasleak bere

erlojura begiratu zuen-. Hobe bi ordu eta erdi barru elkar-
tzen bagara hemen. Uste dut izozki-makina bat ikusi dudala,
gainera.

Neilek irakaslea entsalada-barra luze-luze baterantz
zuzentzen ikusi zuen. Neil aurreko egunetan kezkatuta ibili
zen, taldearengandik aldentzeko zailtasunak izango zituela
pentsatuz, baina argi zegoen Rhomek Neilen misioa ongi
atera zedila nahi zuela.

—Saia habiatik irten da —xuxurlatu zion Neilek Tylerri.

Tommy Scott eta beste ikaskide batzuk glaziar siberia-
rren inguruko erakusketa bat ikustera joan ziren eta Neil
eta Tyler planetariora joan ziren ezkutuka. Hamar minutu
eta hogeita hamazazpi segundo zeuzkaten ikuskizuna hasi
baino lehen beren “Partida Filmazio Debekatua” egiteko.
Ezin zuten segundo bakarra ere galdu.

Mutilak belusezko soken azpitik igaro ziren tunel
ilunaren sarreran.

—“Partida Filmazio Debekatua” misioa martxan da
—esan zuen Neilek, Tylerrekin batera planetariora sartzen
zela. Hutsik zegoen-. Eta areto osoa dugu guretzat.

Tyler korrika joan zen planetarioko proiektore erral-
doiraino eta softwarea konektatzen hasi zen. Gainean
zuten ganga-formako sabaian, partidari ekiteko pantaila
azaldu zen. Neilek jokatzeko aginte gisa erabiltzen zuen
telefonoa bere galtzetako poltsikotik atera eta piztu egin
zuen.

Hark guztiak Neili udaren hasierako misioa ekartzen zion gogora: arriskuaren zirrara, esku artean zeukan ekipamenduaren burrunba... Etxean bideojokoekin jokatzek ez zion adrenalina-igoera hura ematen. Neilek gehiago behar zuen.

—Gaur gauean etxera etorri nahi duzu partidatxo bat jokatzera? —proposatu zion Tylerrek, bere txalekoaren barrura begira zegoela. Kable mordoa eta egokigailu elektronikoak zeuzkan barruan—. Nire umezaina ez da zorrotzegia lotarako orduaren kontuarekin. Gau osoa egon gaitetzke esna *Ezkutuko Ehiztari Sorginduak* bideojokoan jolasten. Nahi baduzu, zuri utziko dizut dadoa lehenbizi jaurtitzen.

—Eskerrik asko, Tyler —esan zion Neilek uzkur—. Baina ezin dut, talde-partida garrantzitsu bat dut...

—Bai, egia, *Kameleoia*. Ahaztu egin zait ostiral honetan zeneukala zure partida garrantzitsua. Kontxo, benetan gustatzen zaizu joko hori —esan zion Tylerrek—. Beno, agian berriz saia ninteke, ezta? Edo zuk nola jokutzen duzun ikusiko dut, nahi baduzu. Bideojokoen *sensei* moduko bat zara.

—Beno, gaur gauean ezinezkoa izango da. Planto egitea eta uda osoan etxeko lorategiko belarra ez moztea erabaki dut, eta horregatik, amak ez dit uzten inor etxera eramaten —esan zion gezurretan Neilek—. Baina Janey azken aldian karate-txapelketa pila batean ari da parte hartzen, eta beraz, baliteke asteburu hauetako batean zure etxera joan ahal izatea —Neil gezurretan ari zela ezkututzen saiatu zen.

Egia esan, Neilen amak ez zukeen eragozpenik jarriko Tyler etxean izateko. Baina Neilek ez zuen Tyler denbora guztian inguruan izan nahi.

—Ulertzen dut, ez kezkatu —esan zion Tylerrek. Orduan, mingaina ahoaren ertzean zuela, Tylerrek museoko sisteman sartzea lortu zuen.

—Hurrengoan —esan zion Neilek, eta telefonoa eman zion, dena presta zezan—. Agintzen dizut.

Aireko Indarrek borroka-hegazkin sekretu bat pilotatzeko errekrutatu zutenetik Neil astebururo saiatu zen beste errekrutekin *Kameleoia* bideojokoko talde-partida bat antolatzen. Baina beti gertatzen zen zerbait eta ezin zuten elkarrekin jokatu: Biggsek bere konposta mugitu behar zuela, edo Yuriren atzerriko eskolak Internet erabiltzea debekatu zuela... Sam ia-ia ez zen ezta konektatzen ere. Bazirudien hara eta hona zebilela, armadak Samen aita bidaltzen zuen lekura joaten. Ez zen ia inoiz konektatzen *Kameleoia* bideojokora.

Gau hartako partida desberdina izango zen, ordea. Denek erantzun zioten, hamaika errekrutek, eta denek esan zioten joka zezaketela. Orduak zenbatzen ari zen.

—Beno, prest gaude —esan zion Tylerrek, Neili telefonoa itzuliz. Berak ere antzeko telefono bat zeukan bere esku argaletan—. Haririk gabeko sarera konektatu zaitut, eta grabatzeko kamera ere konektatu dut. Proiektoreko irudia grabatuko dut, eta kronometratu egingo dut. Eta audioa bozgorailuetara konektatu dut. Sekulakoa izango da.

—Maila-igoera lortuko duzu, soldadu —esan zion Neilek urduri eta partida jokatzeko gogoari eutsi ezinik.

Neilek arnasa sakon hartu zuen eta eserlekuan jarri zen, gorantz begira. Hatzak dardaraka zeuzkala, *start* botoia sakatu zuen, eta Kameleonia beren gainean azaldu zen, planetarioaren gangan proiektatuta. Hasieran pixka bat distortsionatuta ikusten zen, baina Neilen begiak berehala egokitu ziren. Kaleidoskopio bat ematen zuen ia.

—Mundiala! —esan zuten aho batez Neilek eta Tylerrek, Neilen hegazkina beren buruaren gainean azaldu zenean. Ziztu bizian hasi zen aginteko botoiak sakatzen. Audioa ezin argiago entzuten zen areto osoan. Uda osoan aritu zen *Kameleonian* jokatzeko, eta horri esker, Neilen abilezia paregabea zen (ikusezin bihurtzen zen hegazkina bene-benetan gidatzea lortu zuela ez aipatzearen, jakina). Bira perfektuak egiten eta etsaien hegazkin mordoa birrintzen zuela, ahaztu egin zitzaion planetario batean eta guztiz legez kontra ari zela jokatzeko. Berrero ere misioan eta bere lagunekin balego bezala sentitzen zen.

—Zazpi minutu eta piko igaro dira. Errekorra lortu dugu! —oihukatu zuen Tylerrek, eta berehala ohartu zen altuegi esan zuela.

Neilek irribarre egin zion, baina orduan, atearen parean zaratak entzun zituzten. Bazirudien norbaitek belusezko sokak kendu zituela.

—Saia habiara itzultzen ari da—xuxurlatu zuen Tylerrek. Baina Neilek jokutzen jarraitu zuen, segundo bakoitzarekin ospe handiagoa lortuko zuelakoan. Eskuetatik gero eta izerdi gehiago botatzen hasi zen. Tyler, berriz, berehala hasi zen proiektorearen barruan zerbait bilatzen. Neilek begiak planetarioko sabaitik kendu zituen eta bere telefonoaren pantailaxora begiratu zuen. Botoi mordoak sakatu zuen, eta bere hegazkina berehala bihurtu zen ikusezin. Neil benetako Kameleoi bat pilotatzean nabaritzen zen burrunba leuna gogoratzen saiatu zen.

Baina, orduan, Neilen bihotza aztoratu egin zen Tylerrena ez zen ahots bat entzun zuenean. Denbora bukatu zen.

Museoko langile argal bat Neilen ikaskideak aretora sarrarazten ari zen, eskua altxatuta zuela.

—Kaixo. Nire izena Nebula da, eta museo honetako boluntario bat naiz, hau da, ezertxo ere kobratu gabe egiten dut lan zuen museorik gogokoenean, planetarioan, eta buffetean ere bai —esan zuen. Biggsen arreba zirudien. Gaztaina-koloreko ilea zuen, eta kokotserainoko melenatxoa zeukan, motots batean lotutako rastekin. Gona luze eta arin batean gainean, polo urdin bat zeraman, museoaren logotipoarekin eta honakoa zioen botoi biribil batekin: GALDE IEZADAZU GURE IZOZKIEI BURUZ!—. Beno, pozten naiz ikusteaz zuetako batzuk dagoeneko instalazioez gozatzen ari zaretela —esan zuen, Neili eta Tylerri begira. Neil izutu egin zen; baina, gorantz begiratu zuenean, harrিতuta geratu zen

izarrak baino ez zituelako ikusi. Tylerrek luxuzko proiektorearen iturria segundo bakarrean aldatzea lortu zuen. Lasai-lasai beren ikaskideen zain egon ziren plantak eginez, besteak agurtu zituzten eskuaz, proiektorearen ondoko eserlekuetatik.

“Partida Filmazio Debekatua” Misioa arrakasta biribila izan zen!

—Gure teleskopioa azken belaunaldikoa da, eta herrialdeko mendebaldean dagoen teleskopiorik handienetako bat da... Hemendik distantzia sinestezin batera dauden galaxiak ikusteko gauza da —azaldu zien Nebulak—. Ondo da, eser zaitezte. Ikuskizunaz gozatzeko ordua da! —esan zien planetarioaren atearen aurrean zegoen gortina potoloa ixten zuela—. Espero dut guztiok izatea jantzita zuen esploratzailekapelak. Nik neurea daramat, bai horixe. Nik neuk sortua —esan zien Nebulak, benetako kapelarik ez zeraman arren.

Neil harrituta geratu zen Tyler proiektorearen iturria zein azkar aldatzeko gai izan zen ikustean, eta disimulatzen saiatuz, bere telefonoan bideojokotik atera zen, soinuren batek zertan ibili ziren agerian utzi baino lehen. Hasperen egin zuen lasaitu ederra hartuta. Lortu zuen.

—Aizu, “Lotarako Argitxo”, ez ikaratu areto hau ilun geratzen denean —oihukatu zuen Tommyk. Horman “DEBEKATUTA DAGO PLANETARIOAN JATEA” zioen kartel bat zegoen arren, banillazko izozki bati kosk egin zion—. Irteera-seinale baten ondoan eser zaitezke argia behar baduzu.